

PILOTA

Zarauzko pilota
torneoko finalak
gaur jokatu dira

ZARAUTZ

Arteaga-Maiz II eta Etxaniz-Aldazabal II bikoteek jokatu dute gaur A multzoko finala, Zarauzko Pilota Torneoaren barruan. Arteaga eta Antton Maizek asteazkenean jokatu zuten final erdietako partidua, Ariznabarreta eta Ceceagaren aurka. Partidu gogor baten ondoren, Arteaga eta Maizek 22-19 irabazi zuten eta finalerako txartela eskuratu zuten.

Etxaniz eta Aldazabal II osatutako bikoteak ez zuten horrenbeste arazo izan Soroa III eta Mendia bikotea gaintzeko. Aldazabal ondo nagusitu zen atzeko koadroetan eta Etxanizek ez zuten tantoak bukatzea besterik izan. Gaurko finalean, joko polita ikusteko aukera izango da, bi bikoteen artean alde handirik ez bait dago.

B multzoko finalari dagokionez, Bengoetxea IV-Zezeaga eta Alustiza-Arretxe bikoteak izango dira aurrez aurre.


Agerre Kursaaaleko torneotik atgeratu da Matxini irabazi arren

Juan Carlos Intxauspek omenaldi handia izan zuen atzo Galarretan

Agerre eta Matxin II emozioz betetaki partidua jokatu zuten atzo Kursaal torneoaren barruan. Garaipena Joxean Agerrarentzat izan zen, 35-33ko emaitzaz, baina ez da final erdietan egongo, bederatzi tantoko alde behar bait zuen hurrengo kanporaketara pasatu ahal izateko. Intxausperen omenaldia izan zen ihardunaldiko gauzarik aipagarriena.

PELLO AIESTARAN / DONOSTIA

Matxin II eta Mujika II jokatu dute Kursaal torneoko final erdietan, atzoko partiduan emandako emaitzaren ondoren. Joxean Agerrek bederatzi tantoko alde atera beharra zuen aurrera jarraitzeko eta partidua irabaztea lortu bazuen ere, bi tantoko alde besterik ez zen izan. Irabazleak bikain sakatu zuen, partiduan zehar egindako hamalau tantok azaltzen



Partidua irabazi arren Agerre txapelketatik atgeratu da.

duten moduan. Asko arriskatu behar izan zuen tantoak dominatzen saiatzeko eta horren ondorioz hiru huts ere egin zituen. Joxean Agerrek ondo sakatu bazuen, Matxin II ez zen atzean gelditu. Iazko txapelkunak hamar tanto eta bi huts egin zituen sakez.

Partiduaren hasieran, Joxean

Agerrek bederatzi tantoko alde eduki zuen (11-2), baina ondoren Matxinek alde hori murriztea lortu zuen eta parekotasun handia egon zen bukaera arte. Markagailua horrela egon zen: 3-0, 8-1, 11-2, 14-9, 16-15, 19-19, 20-20, 21-21, 21-24, 24-24, 24-26, 28-26, 28-29, 30-29, 30-31, 33-31, 35-33.

Esku huskako finala nagusia gaur garaztar eta lekorndarren artean

L. ETXEHARRERA / BAIONA

Mauleko estreinaldiaren ondotik, aste bat iragan da Frantziako Pilotaren Federakundeak antolatu finalen jokatzeko, plaza laxoan. Pilotazaleek gehienik preziatzen dutena, helduen esku huskako finala, arratsaldeko bostetan izanen da, Baionako pilota plazan.

Donibane Garaziko Goizeko Izarra eta Lekorne Makeako Airetik batasunen artean jokatu da aurten esku huskako helduen artean. Rene Muskarditz eta Pascal Kotabarren arituko dira Jean Michel Mugika eta Etienne Salaberriaren aurka. Lehengo, gazteen arteko finala izanne da lauetan, saratarren eta uztariztarren artean.

«Hein honetan lehen aldiko arribatu gara eta araz bururatuko dugu hori» dio Jean Michel Mugika lakondarrak. Finalera heltzea logika

handi batekin esplikatzeko du: «egundainotik pilotan ari izan naiz beti. Ene ametsa tipian, hori nuen, egun honetara heltzea. Orain, gure lanak fruituak ekarri ditu».

Finala baten irabaztera premia-koa da profesionalen artera edo «berrezkoetara» heldu nahi dutenentzat. Lekorneko pilotari gazte indartsuak, egun horretarako ez ditu «usaiak kanbiatuko batere» eta «beste partidu bat bezala egingen dugu hori».

Mugikaren bidea pilotan Itsasu eta Miarrizetik pasatu zen, Lekorne eta Makearen artean Airetik elkartea sortu artean. Inola ere ez da Sozietate handien beldurrarekin, «plaza gainan ikusi behar da gero» dio, halako apostu gogo batekin garaztarrei begira. Esku huskako joko zailean urteek beren garrantzia badute, eskuen indarragatik baina argi da Mugikarentzat «esku onekin ariko zara pilotan, esku txarrekin ez du balio».



Jean Michel Mugika Lekorndarra Mauleko aurkezpen egunean.

Boutineau: «Pilotaren hitzordu handia»

L.E. / BAIONA

Dominique Boutineau, Frantziako Pilota Federakundearen lehendakaria da. Duela hiru urte t'erdia, Maurice Abeberri zendua ordaindu zuen, honen politikaren jarraitzaile bezala aurkeztuz bere burua. Euskal kirol honek asko zor dio Boutineauri.

EGUNKARIA.— Zer dira zure gogoe-tak Maulen hasi den egunaren ondotik?

BOUTINEAU.— Lehen lehenik, oso pozik naiz hainbeste pilotari bildurik ikusirik Maulen. Lehen arrats hori pilotarien aurkezpena zen baina ere hiri bati omenaldi baten egitea.

EGUNKARIA.— Aurretik pentsatuz, momentu handiak balirateke?

BOUTINEAU.— Zaila da aurretik ja-

kitea, pilotariet dituzte moldatuko. Hala ere, helduen finalak ohargarriak dira. Hazparneko luzeko finala, Luzeanen aurka. Biarnoan iraganen den palako finala ere, Biarnoko bi klubaren arteko finalarekin, lehen aldiko. Mourenxeko finala, atxiki handian, interesanta da: 4. aldiko Moureux arituko da, aurten BACen aurka. Hainbeste indar egin dituen Mourenxek mereziko luke sari bat. Urrutiko ekipoak ere etortzen dira, Canneskoa, eta batez ere Reunion uharterako, gazteekin. Pilotarentzat interesgarria da hori, urrutiko lurralde horretatik etortzea. Finala zerrendan sorpresak, dezeptioak izango dira, kirolaren legea da. Baionan bukatuko da astea esku huskako finalarekin, ohiturari jarraikiz:

Karteldegia

Gaurko partiduak

MARKINA. 17.00. Zarandona - Loibe II / Goixerri - Alkorta. Alberdi - Goya II / Kastaños - Bilbo. Aperribai - Enrike / Mayo - Patxi.

GALARRETA. 16.00.

Larrañaga - Urretabizkaia II / Egialde - P. Lekunberri. Altuna - Agerre / Aseginolaza I - Izagirre. Noain - Ezkurdia / Arregi - Etxeberria. Ezkurra - Txikuri / Olló - Auzmendi.

EUSKAL. 16.00. Lezea - Lizaso / Urrutia - Ulzurrun. Elizalde - A. Lekunberri / M. Lekunberri - Salaberria - Saldias. Urretabizkaia - Zestau II / Guenbe - Barrenetxea.

ZARAUTZ. 16.30. A Txapelketako finala: Arteaga - Maiz II / Etxaniz - Aldazabal II. Bengoetxea II - Errandonea / Alustiza - Arretxe. Ansotegi - Berna / Zabala - Unsain.

LABURREAN

COIko komitea
Berlinden bilduko da
datorren irailean

Nazioarteko Batzorde Olinpikoko (COI) komitea exekutibo hurrengo iraileko 17tik 19ra bilduko da Berlinen. Juan Antonio Samaranch, COIko lehendakaria bertan izango da. Alemaniako funtzionari olinpiko batek atzo azaldu zuenez. Joko Olinpikoak antolatuko dituzten hirietako ordezkariak (Barcelona eta Albertville 1992an, Lillehamer 1994ean eta Nagano eta Atlanta 1996an) antolaketen egoerari buruzko txostenak azalduko dituzte. Hego Afrikaren itzulera, dopinga eta COIren lehen mendeurrena izango dira gairik aipagarrienak ●

SELES aurrera Los
Angeleseko tenis
txapelketan

Monica Seles jugoslaviarrak, lehen zerrendaburua, Los Angeleseko tenis txapelketako final erdietan jokatu du, final laurdenetan Mercedes Paz argentinarra menperatu ondoren. Selesek ez zuen inolako arazorik izan partidu guztian eta 6-2, 6-2ko emaitzaz irabazi zuen. Gabriela Sabatini argentinarrak (2) arazo handiak izan zituen Lori McNeil estatubatuarra menperatzeko. Sabatinik 6-3, 4-6 eta 7-5eko emaitzaz irabazi zuen eta final erdiak jokatzeko txartela eskuratu zuen ●

CAMBIELLA-GARCIA
bikote asturiarra
garaile Getxon

Cambiella eta Garcia asturiarrek irabazi zuten atzo goizean jokaturako Getxoko Piraguismo Sari Nagusia. 150 partehartzaile izan zituen Arriluzeko kaiako uretan jokatu zen proba honek. Cambiello eta Garciak borroka gogorra izan zuten Lopez eta Medranorekin, baina azken luzean 20 metroko alde lortu zuten eta ez zuten garaipena eskuratzeko arazorik izan ●

SHORT eta Gelfandek
taulak sinatzea
erabaki zuten atzo

Nigel Short britainiarrek eta Boris Gelfand soviatarrek taulak sinatu zituzten atzo Kandidatuen Torneo final laurdenetako partiduan. Bi jokalariek hauek laugarren partida atzeratzea erabaki zuten joan zen ostiralean. Gelfandek abantaila txikia zuen atzerapena erabaki zutenean, baina ez zuen irabazterik izan ●